

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ikonoklastaren ajeak



Igor Estankona

Ez dakit hau den Leire Lopez Ziluagak Susako editore lanak hartu dituenetik orraztu, begiratu, zuzendu duen lehen liburua. Argialetxeen barneko kontuok ez dakizkit. Dena dela, erraza behar zuen izan edizio lanak: Karlos Cid Abasolok argi dauka pieza bakoitzari zer itxura eman, zer erritmo, zer hitz aukeratu. Itzultzaile ibili da Hasekena, Holubena, Kunderarena.

Berezkoa dauka. Gogorra dena itxuraz poesia egiteko bere modu xamurra da. Eta nobleak dira bere amorruek, garbia bere begirada: "Oihu egin gabe gelditu ziren/ ilarakoak,/ eman gabe gelditu da/ bart gaueko musu arrotza/gaua hustu ez zedin/ akaso,/ putzuz bete zedin/ igual".

Hizkuntzaren hibridismoa bezala kulturaren hibridismoa ere kritikatzeko du idazleak -"sama moztuko nioke,/ bai,/ porrusalda porruz egiten dela/ aldarrikatzen duen/ edozein fariseuri"- baina badauka asmo bat zabala, asmo bat multikulturala, zapora bat garamatzana orain Lisboara, orain Pragara, folkloreak aurka baina euskalduntasunaren alde.

Lan honetan poeta hasiberria aurkituko duzu, poeta heldua aurkituko duzu. Indiferente behintzat ez zaitu utziko. Lehen aldiz paper batean zirriborroak egiten ari den idazlea kausitu dut uneka orrialdeotan, zorakeria puntu horrekin, emozioak ezin ostenduz.

Darabiltzan lanabesak dira ironia eta paradoxa, errespetu falta eta metafora aski ezagunen errebisioa: "Eskuak eba-


Keinu konplizeak

KARLOS CID ABASOLO

Susaa, 2018

Karlos Cid Abasolo (Madril, 1963) hizkuntzalaria da. Hau du lehen poesia liburua.

DANI BLANCO.



kiko dizkidate,/ eta besoarekin defendituko dut Pretty Woman". Horrek guztiak bihurtzen du *Keinu konplizeak* sano obra bizia, sorpresaz beterikoa eta aberatsa. Eta hain zuzen horrek guztiak egiten du nabarmenegia, baragarria.

Liburu hau jolas antzeko bat da, zinean poesiaren asmo gorenak eta xelebrekeria inozenteenak jartzen diren parez pare: "Baldin eta egingo bazenu/ poema liburu hau erosteko/ keinu heroikoa". Karlos Cid Abasoloren asmoa da ikusaraztea zenbat txori daukagun buruan, kapaz da materiala sortzeko eguneroko keinuetan arakatuz, eta kapaz da zoriona aurkitzeko gauza naifenetan. Liberatzeko idazten du, maitemintzeko idazten du. Gauza da hortik liberatzera, hortik maitemintzera, bide handia dagoela. ■